

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

"Kiriku" Nafarroan dauden hamar ugatzetako bat harrapatu eta irrati-ekipo bat jarri diote

Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzari esker Aralarko Mendilerroan egindako ekimen horrekin, desagertzeko zorian dagoen espezie hori kontserbatzeko neurriak hartu ahalko dira

Viernes, 17 de abril de 2015


"Kiriku" Nafarroan dauden hamar ugatzetako bat harrapatu eta irrati-ekipo bat jarri diote Nafarroako Gobernuko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek Aralarko Mendilerroan elkarrekin egindako ekimenari esker, haren bilakaera jarraitzeko eta espezie hori kontserbatzeko neurriak hartzeko asmoz.



Kiriku.

"Kiriku" berriki harrapatu zuten urrunetik aktibatutako tranpa-sare bat erabiliz. Haren ondoren, irrati-ekipamendu bat jarri zitzaion bizkarrean, 'Argos' GPS/eguzki igorle bat, "motxila" antzeko arnes batekin. Irrati-jarraitzaile horrekin, Nafarroako eta Gipuzkoako basozainek egindako monitorizazio bisualarekin batera, non larreratzen den jakingo da, eta Aralarko Mendilerroaren inguruan ugatzak zer gune erabiltzen duen. Horri esker, espeziearen kontserbazio eta kudeaketako neurri berriak hartu ahal izango dira Pirinioen mendebaldean.

Igorlea hasi da egunero seinaleak bidaltzen GPSan duen kokapena adieraziz, altuera, hegaldiaren abiadura, ibilbidea eta abarrekin. Datu horiekin, proiektuko arduradunek espero dute pare bat denboralditan larraldi-eremua zein duen zehazki ezagutzea, elikatzeko dituen guneak jakitea, bai eta eta Aralarko Mendilerroaren ingurunean ugatzak egindako joan-etorriak ere.



Kirikuren bizkarrean jarritako dispositiboa.

"Kiriku" 2006. urtean Arbaiun inguruan sortutako arra da, eta lau urte baino gehiago daramatza Aralar inguruan. 9 urte betetzeko zorian dago, heldutasunera iritsi da, eta datozen denboraldietan ugalketari heltzeko moduan izango da. Hegazti heldu horien itxurari dagokionez, luma zuriak dituzte buruan eta kolore gorri bizia begiaren esklerotidan.

Aralarko Mendilerroa, berreskuratze-lanetan erreferentzia

Aralarko Mendilerroa Pirinioetan mendebalderago dagoen ugatzaren lurraldea da eta, beraz, espeziea berreskuratzeko eta Kantauri aldera zabaltzeko erreferentzia da.

Ugatza (*Gypaëtus barbatus* L.) putrearen aldaera bat da, animalien hilotzen hezurak eta kartilagoak jaten ditu. Garai historikoetan Iberiar Penintsulako mendialde guztia hartu zuen. XIX. mendetik aurrera, atzeraldi-prozesu batean sartu zen, gaur arte pixkanaka bizitu zena; hala, egun espeziea Pirinioetara mugatzen da.

Nafarroan atzeraldi-prozesu bat izan du, Pirinioetako gainerako lekuetan gertatukoaren antzera. Pirinioetako ibarretan sakabanatuta dauden ugatz gazteen populazio bat dago eta, aldian behin, mendiko beste eremu batzuetara joaten dira. Bost bikote heldu daude Foru Komunitatean (hamar hegazti, guztira), baina ez dute guztiek urtero habiak jartzen. Hazkuntza-eremu hori Pirinioetako populazioaren gunen mendebalena da.